

1. ERANSKINA

OINARRIAK, NAFARROAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO "IRAKASLEENDAKO EUSKARA IKASTEKO EDO HOBETZEKO BANAKAKO LAGUNTZEN DEIALDIA" ARAUTZEN DUTENA

Lehen oinarria. Deialdiaren xedea.

Hezkuntza Departamentuak banakako laguntzetarako deia egiten du Nafarroako ikastetxeetako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleentzat, euskara ikasteko ikastaroak egiteko edo bukatzeko, 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitarte, euskara hobetzeko ikastaroak egiteko, epe horretako eskolarik gabeko aldietan eta oporraldietan, eta baita aipatu epean Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa-EIBZ-n eta Irakasleei Laguntza Emateko Zentroetan eskaintzen ez diren euskara hobetzeko ikastaroak eta euskara irakasteko metodologiaren gaineakoak egiteko ere. Ikastaroak, bai ikastekoak bai hobetzekoak, egin ahalko dira helduei euskara irakasten dieten zentro publikoetan (hizkuntza eskola ofizialetan, unibertsitateetan...) eta helduek euskara ikasteko ikastegi pribatuetan. Helburu bakarra euskara ikastea duen prestakuntza horri bakarrik emango zaio diru laguntza.

Bigarren oinarria. Parte hartzeko baldintzak.

2.1. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetako eta itunduetako irakasleek eskatzen ahalko dituzte laguntzak, betiere ikastaroa hasten den egunean edota matrikula, osorik edo zatika, egiten duten unean jarduneko zerbitzuan badaude edo administrazio edo lan kontratu bat badute, ikastetxe publikoen kasuan, edo lan kontratu bat, ikastetxe pribatu itunduen kasuan.

2.2. Prestakuntza jasotzen duten irakasleek eskubidea izanen dute 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindako edo bukatutako ikastaroen matrikularen zati bat (barnetegiak araubideko ikastaroen kasuan, ostatu- eta mantenu-gastuen zati bat ere bai) ordain diezaieten, betiere laguntzaren xede den ikastaroan (edo ikastaroetan) eskolen % 80tara gutxienez bertaratu badira. Gutxieneko bertaratze hori ez badute, ez zaie eskatutako laguntza emango.

Hirugarren oinarria. Banakako laguntzen deskribapena eta zenbatekoa.

3.1. Ikastaroen ezaugarriak.

Diruz lagunduko dira estentsibo nahiz intentsibo presentzialak, baita barnetegietan egiten direnak, ikastaro erdi-presentzialak eta on-line ikastaroak ere, euskara ikasteko edo hobetzeko helburua dutenak. Hobekuntza ikastaroen helburua izanen da lantzea irakasleen euskarazko hizkuntza gaitasuna bera edo irakas-praktika hobetzeko metodologia.

Hortik kanpo uzten dira hobekuntza ikastaroak eta eduki metodologikoa duten prestakuntza ikastaroak, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak-EIBZk eta Irakasleen Laguntza Zentroek garai horretan eskaintzen dituztelako dohainik irakasleentzat. Hala ere, eskaeran sartzen ahalko dira zentro horietan eman ez diren ikastaroak.

Helburu bakarra euskara ikastea duen prestakuntza horri bakarrik emango zaio diru laguntza.

3.2. Zenbatekoa.

Laguntza, hasiera batean, matrikularen kostuaren %50 izanen da. Barnetegietako ikastaroen kasuan, halaber, ostatu eta mantenu gastuen %50 ere ordainduko da, gutxienez.

3.2.1. Ezarritako irizpideak aplikatu ondoren, proposamen guztiei erantzuteko bezainbeste dirurik ez badago aurrekontuan, hainbanaketa aplikatuko da guztietan, behar den portzentaje murrizketarekin.

3.2.2. Eskaera guztiei erantzun ondoan diru erabilgarria gelditzen bada helburu hori duen partidari, hainbanaketa aplikatuko da, eta behar den portzentajearen igoko dira laguntzak.

3.2.3. Jasotzen den laguntzak ez dio inolako onura ekonomiko pertsonalik ekarriko adjudikaziodunari.

3.3. Laguntzen banaketa.

Laguntzen %75 sare publikoko irakasleentzat izanen da, eta %25, sare itundukoentzat.

Sare batean erreserbatutako laguntza guztiak esleitzea posible ez bada, esleitu gabeak beste sarean emanen dira.

Laugarren oinarria. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko irailaren 1ean hasi eta hilabete horretako 15ean bukatuko da, azken egun hori barne.

Bosgarren oinarria. Eskaerak aurkeztea eta dokumentazioa.

5.1. Eskaerak aurkeztea.

a) Web-formulario bat erabiliko da eskaera egiteko, ahal izatera. Eskaerak egiteko epea hasten denean (irailaren 1ean) emanen da formulario horren URLa. Eranskin honen 5.2 puntuan aipatzen den dokumentazioa web formularioari atxikita aurkeztu beharko da.

Hautapen Batzordeak agiri originalak eskatzen ahalko ditu, behar diren egiaztapenak egiteko, beharrezkotzat jotzen badu.

b) Bestela, Hezkuntza Departamentuko erregistroan aurkeztuko dira ebazpen honen 2. eranskineko eskabidea eta dagokion dokumentazioa.

Nolanahi ere, arestian esandakoa galarazi gabe, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduetako edozeinen bidez ere aurkezten ahalko dira.

Eskabidea eta dokumentazioa posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal ireki batean sartuko dira, postako funtzionarioak, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar diezazkion.

Deialdiaren prozesu osoa (eskabidea, agirien aurkezpena eta abar) telematika bidez gauzatzen ahalko da, webgune honen bidez:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Erregistro-Orokor-Elektronikoa>. Elektronikoki tramitatzeko, beharrezkoa da NAN elektronikoa edo ziurtagiri digitala edukitzea.

Deialdi honetako laguntzetarako eskabideak Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari zuzenduko zaizkio beti.

5.2. Dokumentazioa.

- Web-formularioa edo eskabide orria (Ebazpen honen 2. eranskina).

- Entitate antolatzaileak emandako ziurtagiria, esaten duena eskatzaileak ikastaroan parte hartu duela, honako hauek adierazita: parte-hartzailearen izen-abizenak, ikastaroaren izena, maila, modalitatea (hirugarren oinarriko 1. puntua), prezioa, ikastaroa noiz hasi eta bukatu zen, ordu kopurua guztira, eta eskatzaileak egindako ikastorduak guztira,

bertaratze portzentajea kalkulatuta (ikus bigarren oinarriko 2.2 puntua). Datu horiek guztiak nahitaezkoak dira laguntza ordaintzeko.

- Matrikula tasa ordaindu izanaren frogagiria (ez bada agertzen entitate antolatzaileak emandako ziurtagirian).

- Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera (SAT-TOE). Irakasle eskatzaileek "Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera" (3. eranskina), jatorrizkoa, erregistratu beharko dute eskaera egiteko epean, dagokion banketxeak betea eta zigilatua ondorengo kasuetan:

a) Beste inoiz bidali ez badute.

b) Inoiz egin badute ere, kontu-korrontea aldatu badute.

Agiri hori helbide honetan eskura daiteke:

http://www.navarra.es/home_es/Servicios/Recursos/Impresos+de+Tesoreria.htm.

Honela erregistratu ahal izango da:

1. Erregistro Elektronikoko Orokorra:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Erregistro-Orokor-Elektronikoa>

Destinoa: Ekonomia eta Ogasun Departamentua. Diruzaintza Atala

2. Postaz bidalita edo honako helbide honetan entregatuta:

Ekonomia eta Ogasun Departamentua
Diruzaintza Atala
Carlos III.a, 4-2
31002 Iruñea

Nolanahi ere, mezu elektronikoko bidez jakinarazi beharko zaio Euskara Atalari igorketa hori egin dela, baita igorketa-data ere (euskaraatala@navarra.es).

Seigarren oinarria. Bateragarritasuna.

Beste administrazio publiko batzuek laguntzak emanaz gero euskara ikasteko edo hobetzeko prestakuntza ikastaroak 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egiteko, aurkeztu beharko da zenbateko hori egiaztatzen duen ziurtagiria, administrazio emaileak egina. Nolanahi ere, Hezkuntzako Departamentuaren laguntzaren eta gainerako laguntzen baturak ezin du inola ere gaingitu matrikularen zenbatekoa (edo matrikula gehi ostatua, barnetegietako ikastaroen kasuan). Edonola ere, eskatzaileak Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari jakinarazi beharko dio zer laguntza eskatu edo jaso duen.

Zazpigarren oinarria. Hautapen batzordea.

Kide hauek osatuko dute hautapen batzordea:

- Euskara Ataleko burua edo hark izendatutako ordezkaria.
- Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua.
- Euskara Ataleko teknikari bat.

Hautapen batzordeak eskaera guztiak baloratu eta esleitu dituzte, deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera.

Zortzigarren oinarria. Deialdiaren ebazpena.

Hautapen batzordeak esleipen prozesuaren behin-behineko emaitzak zerrenda batean argitaratuko ditu web-orri hauetan ("Berriak" - "Gaur-gaurkoa"):

-<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/actualidad>
(gaztelania)

-<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/actualidad>
(euskara)

-Nafarroako Ataria (www.navarra.es).

-Interesdunei posta elektronikoz jakinaraziko zaie informazioa eskaeran adierazitako posta elektronikoaren bidez.

Zerrenda horretan honako hauek agertuko dira:

-Behin-behinekoz esleitu diren eskaeren zerrenda.

-Baztertutako eskaeren zerrenda, arrazoia zein izan den zehaztuta.

-Falta den dokumentazioa edo zuzendu beharreko akatsa, hala badagokio.

Eskatzaileek 10 egun naturaleko epea izango dute, gehienez, aurkeztu ez dituzten agiriak aurkezteko edo aurkeztutako akatsak zuzentzeko, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala egin ezean, epe hori igaro ondoren, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

Halaber, hautagaiek erreklamazioak aurkez ditzakete hautapen batzordearen aurrean, hiru egun baliouduneko epean, behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe hori iraganik, erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, eta agiriak aurkezteko edo aurkeztutako akatsak zuzentzeko epea igarota, esleitutako laguntzen behin betiko zerrenda argitaratuko du batzordeak eta Ebazpena jakinaraziko die esleipen hartzaileei.

Hezkuntzako zuzendari nagusiak gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko du deialdi hau, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita, batzordearen proposamenarekin bat.

Bederatzigarren oinarria. Laguntzen ordainketa.

Deialdi honetan adierazitako baldintzekin bat, esleitutako laguntza guztiak ordaintzeko, deialdiaren bosgarren oinarrian aipatzen diren agiria guztiak aurkeztu behar dira aurretik.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak berekin ekartzen ahal du laguntza emateko ebazpena aldatzea.

Laguntza hauen onuradunak behartuak daude Hezkuntza Departamentuak eskatzen dien informazio guztia ematera, eta behar diren finantza-kontrolerako lanen menpe geldituko dira. Oinarriotan ezarrita ez dagoen orotan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Hamargarren oinarria. Egiaztapena.

Euskarazko eduki metodologikoa duten ikastaroen kasuan, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak ziurtagiri bat egingen du, jarduerari aitorpen ofiziala emanen diona, ikastarora joan izanaren ziurtagirian zehazten diren prestakuntza-orduak aitortzeko.

Hamabigarren oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen eta honetatik sortzen diren egintzen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal dute, Hezkuntza Departamentuko kontseilariari zuzendua, haiek jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.